

ikasmina:

**Ikasmina DoKS:**

Gipuzkoan bizitza guztian zeharreko  
ikasketari buruzko dokumentuak

# Pertsona seniorren parte hartzea ikaskuntzan

**93. dokumentua**

**2023ko urria**

## AURKIBIDEA

<b>1. Aurkezpena .....</b>	<b>3</b>
1.1. Aurkezpena .....	3
<b>2. Ikasten duten pertsona seniorrak .....</b>	<b>5</b>
2.1. Ikasten duten seniorrak (55 eta 74 urte artekoak) .....	5
2.2. Pertsona seniorren ikaskuntza jarraitua .....	7
2.3. Ikaskuntzaren ibilbidea eta intentsitatea; seniorrak .....	8
<b>3. Zer eta zergatik ikasten duten seniorrek .....</b>	<b>10</b>
3.1. Zein dira egindako ikaskuntza-jarduerak? .....	10
3.2. Egindako ikaskuntzaren ezaugarriak .....	11
3.3. Ikasteko arrazoiak eta ikasteko aurreikuspena .....	14
3.4. Ikaskuntzan parte-hartzeko oztopoak .....	16
3.5. Ikaskuntzaren garrantzia pertsonen bizitzan .....	18
<b>4. Talde seniorraren baitako ezberdintasunak .....</b>	<b>19</b>
4.1. Talde seniorraren osaera, adin-azpitaldearen arabera .....	19
4.2. Ikaskuntzan parte hartzea eta adina (talde seniorra) .....	22
4.3. Aurreikuspenak eta ez ikasteko oztopoak (talde seniorra) ...	23
<b>5. Ondorioak .....</b>	<b>25</b>
5.1. Laburpena: emaitza nagusiak .....	25

# 1. Aurkezpena

## 1.1. Aurkezpena

Europako desberdintasun maila baxueneko pertsonen komunitatea bihurtzea da Gipuzkoaren helburuetako bat. Horretarako, bizitza osoko ikaskuntza erronka bat da lurraldeko eragile guztientzat. Pertsonak gero eta aldakorragoa den gizarteari eta lan-merkatuari aurre egitea ahalbidetuko du bizitza osoko ikaskuntzak, eta erraztu egingo du gaitasun intelektual handiagoa eskatzen duten lanpostuetara egokitzea. Gaitasun horiek, ezinbestean, hiru trantsizioekin (teknologiko-digitala, energetiko-klimatikoa eta osasun eta gizarte arlokoa) lotutako trebetasunekin konbinatu behar dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapenaren eta Proiektu Estrategikoen Departamentuak pertsonetikiko eta haien lanaren kalitatearekiko hartutako konpromiso honek, ezinbestean, kontuan hartu behar du Gipuzkoako ingurunea aldakorra dela. Ingurune horretan, ikaskuntzarako orientazioan eta pertsonen egokitzeko gaitasunean oinarritzen da bizitza osoko ikaskuntza; pertsonen enplegagarritasuna errazten duen palanka da, eta parte hartzen duten erakundeen eraldaketa bultzatzen du.

Ikerketa-proiektu honek Gipuzkoako pertsona helduen (25-74 urte) ikaskuntza-jardueraren jarraipena egiten du. Horretarako, urtero kontsulta egiten da (urteko lehen hiruhilekoan).

Dokumentu honek, zehazki, 55 urte eta gehiagoko pertsonak (aurrerantzean, talde seniorra) egindako ikaskuntzaren inguruko emaitzak jasotzen ditu, herritar aktiboen eta pertsonen bizi-ibilbidean aurrera egin ahala ezagutza lortzearen adierazle garrantzitsu gisa.

Gainera, hiru une hartzen ditu aintzat, bi urteko batezbesteko gisa: 2016-2017 eta 2019-2020, pandemiaren aurreko bi une gisa<sup>1</sup>, enpleguaren hazkunde txikiagoarekin eta handiagoarekin; eta 2022-2023, pandemia osteko egoeraren erreferentzia eguneratu gisa.

### **Metodologia: neurketaren jarraikortasuna eta nazioartean alderatzea bermatzen duten ikaskuntza-definizioen aplikazioa**

Gipuzkoako pertsona helduek egindako ikaskuntza-jardueren berri izateko, urtero inkesta egiten da. Definizioak<sup>2</sup> eta edukiak mantentzeak bermatzen du neurketaren jarraikortasuna eta, batez ere, nazioartean alderatu ahal izatea. Zehazki, ikerketa-ildo honetan, hiru ikaskuntza-kategoria nagusi hartzen dira:

- Ikaskuntza formala: hezkuntza- eta prestakuntza-zentroetan egiten da eta aitortutako kualifikazioak eta diplomak lortzera bideratuta dago.
- Ikaskuntza ez-formala: modu antolatuan eta iraunkorrean egiten da, baina ez dago titulu ofizial bat lortzera bideratuta. Hezkuntza-erakundeen baitan nahiz kanpoan egin daiteke (bizitzan moldatzeko tresnak, lanarekin lotutako ikastaroak, kultura orokorra, pintura-eskolak...).
- Ikaskuntza informala: ikasteko asmoz egiten diren jarduerak dira, norbere kasa egiten dira, inolako erakundeetara joan gabe. Ez dago ikaskuntza ez-formala bezain egituratuta, adibidez, familian izaten diren ikaskuntza-jarduerak, lantokikoak, edo pertsona bakoitzaren eguneroko bizitzakoak izan daitezke.

Azkenik, aipatzekoa da ikaskuntza formaleko eta/edo ez-formaleko jardueretan pertsona helduen parte-hartzea oinarri hartuta eratzten dela bizitza osoko ikaskuntzako parte-hartze tasa<sup>3</sup>

<sup>1</sup> Urtero otsailean egiten da kontsulta. Hortaz, Covid-19ak sortutako mundu mailako pandemiaren eraginez ezarritako murrizketen aurrekoak dira 2020ko emaitzak.

<sup>2</sup> Eurostaten metodologia.

<sup>3</sup> Ikaskuntza informalak osatzen du ikaskuntzaren ikuspegi orokorra, baina ez dira aipatutako zenbaketan kontuan hartzen, oso subjektiboa baita –norbere kontura ikasten dena–, eta oso irregularra da herrialde batetik bestera. Iturria: Eurostat.

## 2. Ikasten duten pertsona seniorrak


### 2.1. Ikasten duten seniorrak (55 eta 74 urte artekoak)

#### Gipuzkoako pertsona seniorren artean, laurik ia batek ikasten du

Grafikoak erakusten duenez, helduen (25-74 urte) etengabeko ikaskuntzaren parte-hartzearen ratio sendoa du Gipuzkoak. Hala, hamar pertsonatik lauk parte hartzen dute etengabeko ikaskuntzan, eta proportzioa egonkorra da aintzat hartutako hiru erreferentziako uneetan (2016-17 eta 2019-20, pandemiaren aurretik eta enpleguaren hazkunde ezberdinekin; eta 2022-23, pandemiaren ondoren eta enplegu maila altuarekin).

#### 1. grafikoa. Ikasten duten pertsonak: pertsona helduak eta seniorrak

Baiezko erantzunen %, kolektibo bakoitzeko guztizkoarekiko.



Pertsona helduak: 25-74 urte; Pertsona seniorrak: 55-74 urte

Kontsulten batezbestekoa

Iturria: Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

Heldu guztien multzoaren emaitzarekin alderatuta, etengabeko ikaskuntzako parte-hartzea nabarmen baxuagoa da senior taldean (55-74 urte): hamarretik bi pertsona ingurukoa. Dena den, helduen ratioa egonkor mantendu bazen ere, talde seniorraren ratioak gora egin zuen 2016-17 eta 2022-23 artean: ehuneko 5,2 puntuko igoera.

**Talde seniorrak ikaskuntzan duen parte-hartzea nahiko homogeneoa da generoaren arabera**


Talde seniorrak ikaskuntzan duen parte-hartzea generoaren arabera banakatuta, emakumeek etengabeko ikaskuntzan duten parte-hartzea gizonena baino apur bat handiagoa dela ikus daiteke, 2016-17 biurtekoan izan ezik. Hala, eta hiru uneetako batez besteko balioa kontuan hartuz gero, gizonen ratioa % 20,6koa izango litzateke, eta emakumeena % 23,1ekoa.

Bestetik, generoaren araberako emaitzek erakusten dutenez, pertsona seniorren parte-hartzearen tasak goranzko joera du, eta balio nabarmen handiagoak zituen 2019-20 eta 2022-23 biurtekoetan, 2016-17an baino. Hain zuzen ere, muturreko bi balioen arteko aldea ehuneko +3,5 puntukoa da gizonen kasuan, eta ehuneko +6,9 puntukoa emakumeen kasuan.

Hala, hurrengo kontsulten emaitzek erakutsiko dute hobekuntza-ibilbide hori finkatzen den ala ez.

**2. grafikoa. Ikasten duten pertsona seniorrak, sexuaren arabera**

*Baiezko erantzunen %, kolektibo bakoitzeko guztizkoarekiko.*



*Kontsulten batezbestekoa*

*Iturria: Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia*



## 2.2. Pertsona seniorren ikaskuntza jarraitua

### Hamar pertsona seniorretik batek ikasi egin du azken lau asteetan


Ikaskuntza jarraitua kontsultaren aurreko lau asteetan egindakoa da. Etengabeko ikaskuntza, berriz, aurreko hamabi hilabeteetakoa. Grafikoan ikus daitekeenez, definizioz, ikaskuntza jarraituko parte-hartzearen tasa txikiagoa da.

Dena den, Gipuzkoako biztanle helduen ikaskuntza jarraituko parte-hartzearen tasa % 16-18 ingurukoa da eta nahiko egonkor mantendu da aintzat hartutako bi uneetan (2016-17 eta 2022-23). Bestetik, ratio hori nabarmen baxuagoa da talde seniorren kasuan, % 10 ingurukoa, azkenaldiko datua hobea den arren (2022-23 biurtekoan % 11,4).

Azkenik, bi kolektiboen bilakaera alderatuz gero, ikaskuntza jarraituak bilakaera hobea izan du talde seniorren kasuan, biztanleria orokorraren kasuan baino. Izan ere, bi emaitzen arteko aldea txikiagoa da azkenaldiko kontsultetan (ehuneko -6,4 eta -6,6 puntu 2019-20 eta 2022-23 biurtekoetan, eta ehuneko -8,3 puntu 2016-17an).

### 3. grafikoa. Ikasten duten pertsonak, pertsona helduak eta seniorrak (azken 4 asteak)

Baiezko erantzunen %, kolektibo bakoitzeko guztizkoarekiko.



Kontsulten batezbestekoa

Iturria: Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

## 2.3. Ikaskuntzaren ibilbidea eta intentsitatea; seniorrak

**Ikaskuntza-ibilbidea sendotu egin da: pertsona seniorren erdiek baino gehiagok parte hartzen dute urtero edo urte batzuetan**

Pertsona seniorrek etengabeko ikaskuntza-jardueretan duten parte-hartzearen ibilbideari buruz eman dituzten erantzunak jasotzen ditu atxikitako taulak. Pertsonak aipatutako jarduera nola baloratzen duten jasotzen du galderak, aurreko urteetako jarduerarekin alderatuta.

Hala, eta emaitzarik berrienetatik hasita (2022-23ko batezbestekoa), seniorren heren batek bakarrik adierazi du ez duela inoiz ere parte hartu ikaskuntza-jardueretan. Aldiz, jarduera horietan parte hartu izana aitortu duten bi herenen (% 67,7) artetik, urtero edo urte batzuetan ikaskuntza-jarduerak egiten dituztenak nagusitzen dira (% 26,5 eta % 26,6), oso noizean behin egiten dituztenen aurretik (% 14,7k ia inoiz ere ez).

Emaitza horiek aurreko urteetan jasotako erantzunekin alderatuz gero, bi puntu aipa daitezke. Batetik, apur bat hazi da inoiz ere parte hartzen ez duen taldea (% 25,4tik % 32,3ra; ehuneko +6,9 puntu), baina murriztu egin da oso noizean behin parte hartzen dutela diotenen taldea (ia urte batean ere ez; % 23,8tik % 14,7ra; ehuneko -9,1 puntu).

Bestetik, hazi egin da urtero parte hartzen dutenen taldea (% 20,6tik % 26,5era; ehuneko +5,9 puntu), eta behera egin du urte batzuetan parte hartzen duenak (% 30,3tik % 26,6ra; ehuneko -3,7 puntu).

**1. taula. Pertsona seniorren ikaskuntza-ibilbidea**

banaketa bertikala; %

	2016-17	2019-20	2022-23
<b>Pertsonak parte hartzen dute (ikasten dute)...</b>			
Urtero edo ia urtero	20,6	23,1	26,5
Urte batzuetan	30,3	29,8	26,6
Ia urte batean ere ez	23,8	16,5	14,7
Inoiz ez	25,4	30,7	32,3
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Kontsulten batezbestekoa

Iturria: Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia



Funtsean, emaitza horiek bi gertakari erakusten dituzte, eta datozen kontsultetan baieztatu beharko dira. Hala, badirudi talde seniorra muturreko bi posizioetarantz gerturatu dela ikaskuntzako parte-hartzeari dagokionez. Izan ere, urtero ikasten duten edo inoiz ikasten ez dutenen pisu erlatiboak dira handienak.

Gainera, sendotu egin da erregulartasunez parte hartzen duten seniorren taldea (urtero eta urte batzuetan parte hartzen duten pertsonak, % 50,9tik % 53,1era igo da 2016-17 eta 2022-23 artean). Aldiz, murriztu egin da noizean behin parte hartzen duten edo inoiz parte hartzen ez dutenen taldea (ia urte batean ere ez edo inoiz parte hartzen ez dutenak % 49,1etik % 46,9ra jaitsi dira 2016-17 eta 2022-23 artean).

## 2. taula. Ikaskuntza-intentsitatea; pertsona seniorrak

banaketa bertikala (%)

	2016-17	2019-20	2022-23
Aurreko urtean baino handiagoa	9,2	19,9	19,6
Aurreko urtean bezalakoa	80,1	71,2	68,1
Aurreko urtean baino txikiagoa	10,7	8,9	12,3
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Kontsulten batezbestekoa

Iturria: Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

Seniorrek egindako ikaskuntzaren intentsitatearen gainean emandako balorazioarekin osatzen da atal hau: azken urteko ikaskuntza-jarduera, orokorrean, aurreko urteetakoa baino handiagoa edo txikiagoa izan den baloratu behar da (jarduera kopurua, erabilitako denbora... kontuan hartuta).

Emaitzek erakusten dutenez, asko hazi da aurreko urtean baino jarduera handiagoa izan dutela adierazi dutenen taldea, eta 2019-20an eta 2022-23an eskuratu zituen emaitzarik onenak (% 19,9 eta % 19,6, hurrenez hurren), 2016-17 biurtekoan baino ehuneko 10 puntu hobeak, gutxi gorabehera.

Intentsitate bera mantendu dutela dioten pertsonen taldea murriztu egin da (% 80,1etik % 68,1era), erantzun gehienak oraindik ere talde horrek biltzen dituen arren. Hain zuzen ere, beherakada horrek eragin du aurrez aipatu dugun igoera. Azkenik, parte-hartzearen intentsitateak behera egin duela adierazi duten pertsona seniorren taldea % 10 inguruan finkatu da.

# 3. Zer eta zergatik ikasten duten seniorrek

## 3.1. Zein dira egindako ikaskuntza-jarduerak?

### Talde seniorrak ikaskuntza ez-formalaren alde egiten du

Pertsona helduek (25-74 urte) eta seniorrek (55-74 urte) ikaskuntza formalean eta ez-formalean duten parte-hartzeari buruzko emaitzak jasotzen ditu honako taula honek. Modalitate horien barnean dago etengabeko ikaskuntza. Jasotako emaitzen arabera, bi kolektiboen kasuan, etengabeko ikaskuntzaren zati handi bat modalitate ez-formalean gauzatzen da (helduen % 31,3 eta seniorren % 20,9, 2022-23an).

Orokorrean, parte-hartzearen ratioak nahiko egonkor mantentzen dira. Osagai formalak goranzko joera apala du bi kolektiboen kasuan (ehuneko +1,7 puntu eta ehuneko +2,9 puntu) eta, talde seniorraren kasuan, osagai ez-formalak ere gora egin du (ehuneko +2,9 puntu).

### 3. taula. Ikasten duten pertsona helduak eta seniorrak, ikaskuntza motaren arabera

Baiezko erantzunen %, kolektibo bakoitzeko guztizkoarekiko.

	2016-17	2019-20	2022-23
<b>Ikasten duten pertsona helduak</b>			
Ikasketa formala	8,7	8,8	10,5
Ikasketa ez-formala	35,3	34,7	31,3
<b>Ikasten duten pertsona seniorrak</b>			
Ikasketa formala	1,0	2,7	3,9
Ikasketa ez-formala	18,2	20,5	20,9

Kontsulten batezbestekoa

Iturria: Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

## 3.2. Egindako ikaskuntzaren ezaugarriak

### Hazi egin da jarduera gehiagotan parte hartzen duten pertsona seniorren taldea

Daturik eguneratuenean erakusten dutenez, pertsona seniorren ia erdiek (% 47,7) etengabeko ikaskuntza-jarduera bat egin dute azken urtean. Horrek esan nahi du jarduera bat baino gehiago egin dutela erdiek baino gehiagok. Zehazki, hiru pertsonatik batek baino zerbait gehiagok (% 37,5) adierazi dute bi jarduera egin dituztela, eta zazpitik batek (% 14,9), gutxi gorabehera, hiru jarduera edo gehiago egin dituela.

Aurreko kontsultetan eskuratutako emaitzek erakusten dutenez, 2019-20ko emaitzetan ere ikus zitekeen patroia hori, hortaz, badirudi finkatzen ari direla eta urruntzen ari direla 2016-17ko jarduera-tasa erlatibo txikiagoetatik (egindako ikaskuntza-jardueren kopuruari dagokionez).

### 4. taula. Egindako ikaskuntzaren ezaugarriak. Pertsona helduak eta seniorrak, guztira

banaketa bertikala: %

	2016-17	2019-20	2022-23
<b>Ikastaro-jarduera kopurua – Pertsona helduak guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Jarduera bat	51,9	42,1	39,0
Bi-hiru jarduera	39,7	41,4	40,6
Hiru jarduera baino gehiago	8,4	16,5	20,4
<b>Ikastaro-jarduera kopurua – Talde seniorra</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Jarduera bat	63,7	43,8	47,7
Bi-hiru jarduera	28,4	41,8	37,5
Hiru jarduera baino gehiago	8,0	14,5	14,9

Kontsulten batezbestekoa

Iturria: Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoako pertsona heldu guztiei dagozkien emaitzak nahiko antzekoak dira, baina, kasu honetan, ohikoagoa da jarduera batean baino gehiagotan parte hartu izana. Zehazki, hamar pertsonatik seik prestakuntza-jarduera bat baino gehiago egin dute azken urtean (% 61), eta bost pertsonatik batek adierazi du hiru ikaskuntza-jarduera baino gehiago egin dituela (% 20,4).

### Hamar pertsona seniorretik lauk finantzatu egiten dute haien ikaskuntza-jarduera

Ikaskuntzaren finantzaketari dagokionez, 2022-23an hamar pertsonatik lauk baino gehixeagok adierazi dute aipatutako jarduerak pertsonalki finantzatu dituztela (% 42,2). Hirutik batek adierazi du doako jarduerak izan direla (% 34,8), eta hamarretik bik esan dute lan egiten duten enpresak finantzatu dituela (% 23,0).

Aurreko kontsultetan eskuratutako emaitzekin alderatuta, badirudi pisu erlatiboa galdu duela doako ikaskuntza egin duten pertsonen taldeak (% 49,9, % 20,2 eta % 34,8 2016-17, 2019-20 eta 2022-23 biurtekoetan, hurrenez hurren). Ikaskuntza-jarduera modu pertsonalean finantzatu dutenen taldeak, berriz, gora egin du (% 31,8, % 47,4 eta % 42,2), eta aukera nagusi gisa finkatu da azkeneko bi kontsultetan. Azkenik, finantzaketa enpresak egin duela adierazi duten pertsona seniorren ehunekoa handiagoa da azken kontsultetan (% 32,5 eta % 23,0 2019-20 eta 2022-23an). Hala, senior taldearen barruan aktibo dauden pertsonen pisua igotzen ari dela ikus daiteke.

### 5. taula. Egindako ikaskuntzaren finantzaketa. Pertsona helduak eta seniorrak, guztira

banaketa bertikala; %

	2016-17	2019-20	2022-23
<b>Finantzaketa (ikaskuntzaren ordaintzailea). Pertsonak guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Parte hartutako pertsonak	28,3	48,0	37,0
Lan egiten duen enpresa (lan egiten badu)	36,4	34,3	39,1
Doakoa	35,3	17,8	23,9
<b>Finantzaketa (ikaskuntzaren ordaintzailea). Talde seniorra</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Parte hartutako pertsonak	31,8	47,4	42,2
Lan egiten duen enpresa (lan egiten badu)	18,3	32,5	23,0
Doakoa	49,9	20,2	34,8

Kontsulten batezbestekoa

Iturria: Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoako pertsona heldu guztientzat eskuratutako datuek erakusten dutenez, prestakuntza-jardueren finantzaketa-iturri nagusia lan egiten duten enpresak dira. Eta parte hartzaileek eurek finantzatutako ikaskuntzak antzeko pisua du. Zehazki, prestakuntza-jardueraren bat egin duten Gipuzkoako pertsona helduen % 39,1ek adierazi dute haien enpresak finantzatu duela ikaskuntza-jarduera, eta pertsonak

berak finantzaturako jarduera kokatzen da jarraian (% 37,0). Azkenik, gutxi gorabehera, bost pertsonatik batek adierazi du egindako prestakuntza doakoa izan dela (% 23,9).


### Hamar pertsona seniorretik sei prest daude ikastearen truke ordaintzeko

Senior pertsonen zati handi bat prest dago ikasketak ordaintzeko (% 61,0), osorik (% 45,0) edo partzialki (% 16,0). Gipuzkoako biztanleria helduaren kasuan apur bat handiagoa da ehuneko hori (% 68,6), bi osagaien kasuan: osorik (ehuneko +4 puntu) edo partzialki (ehuneko +3,6 puntu).

Hala, pertsona seniorren artean pisu erlatibo handiagoa dute ikaskuntzak doakoa izan beharko lukeela adierazi dutenek (% 30,5; ehuneko +4,7 puntu) edo ezin dutela ordaindu esan dutenek; azken hori izan da gutxien aipaturako aukera (% 8,5; ehuneko +2,9 puntu, biztanleria heldu osoarekin alderatuta).

Jasotako emaitzek 2016-17 eta 2022-23 artean izandako bilakaerak erakusten duenez, aintzat hartutako bi kolektiboek (pertsona heldu guztiak eta talde seniorra) bilakaera bera izan dute: hazi egin da osorik zein partzialki ordaintzeko prest daudela diotenen pisua.

#### 4. grafikoa. Ikasteagatik ordaintzeko prestutasuna. Pertsona helduak eta seniorrak



*Kontsulten batezbestekoa*

*Iturria: Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia*


### 3.3. Ikasteko arrazoiak eta ikasteko aurreikuspena

#### Talde seniorrean pisu apur bat gehiago irabazi du motibazio pertsonalak

Ikasteko motibazioari buruz jasotako emaitzen arabera, 2019-20 eta 2022-23ko kontsultetan (lau eragiketa) motibazio pertsonala gailentzen da, motibazio profesionalaren aurretik. Aurkako egoera erregistratu zen 2016-17an, motibazio profesionalak pisu handiagoa baitzuen orduan.

Dena den, orokorrean, pertsonak bi motibazioen artean nahiko modu orekatuan banatuta daudela esan daiteke. Halaber, baliteke jasotako emaitzen aldakortasuna talde seniorraren osaera bereziaren ondorioa izatea, talde horren baitan bi tarte oso ezberdin baitaude enpleguari dagokionez (55-64 urte eta 65-74 urte). Bestetik, lotuta egon daiteke taldearen ikaskuntza-tasa txikiagoarekin ere (horrek, aldi berean, emaitzen aldakortasunari eragiten dio: zenbat eta gehiago banakatu, orduan eta aldakorragoak).

#### 5. grafikoa. Talde seniorraren ikasteko arrazoiak




Kontsulten batezbestekoa

Iturria: Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

Hala, 2022an eta 2023an egindako kontsulten batez besteko emaitzak jasotzen ditu atxikitako grafikoa, hamarnako adin-tarteen arabera eta ikasteko motibazioari dagokionez. Grafikoan ikusten den moduan, motibazio profesionala gailentzen da enpleguarekin lotutako adin taldeetan: % 68-79k aipatu dute 25-34 eta 45-54 urte arteko pertsonen artean.

Hain zuzen ere, portaera ezberdinak dituzten bi kolektibo barne hartzen ditu talde seniorrak<sup>4</sup>: 55-64 urte artekoen taldean motibazio profesionala gailentzen da, eta 65-74 urtekoen artean, motibazio pertsonala.

**6. grafikoa. Ikasteko arrazoiak (2022-23), adin-taldearen arabera**



Kontsulten batezbestekoa

Iturria: Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hiru pertsona seniorretik batek adierazi du ikasten jarraitzeko asmoa duela**


Kontsulta egin ondorengo hamabi hilabeteetan zehar ikasten jarraitzeko asmorik duten galdetuta, pertsona seniorren % 30,0k adierazi dute baietz, asmoa dutela. Ehuneko horrek erakusten duenez, ratioa apurka igotzen joan da aintzat hartutako hiru denbora-tarteetan.

2022-23an eskuratutako emaitzak eta erregistratutako ibilbideak erakusten dutenez, talde seniorraren eta Gipuzkoako biztanleria heldu osoaren arteko arrakala murriztu egin da ikasteko asmoari dagokionez. Zehazki, 2022-23an arrakala hori ehuneko 12,4 puntukoa da, talde seniorraren kaltetan, baina murriztu egin da 2016-17tik, orduan ehuneko 17,3 puntukoa baitzen.

<sup>4</sup> Gainera, ikaskuntza-ratio oso ezberdinak dituzte, 4. kapituluan ikus daitekeen moduan.



**7. grafikoa. Datorren urtean zehar ikasten jarraitzeko asmoa duten pertsonak. Pertsona helduak eta 55 urte eta gehiagokoak**



Kontsulten batezbestekoa

Iturria: Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

### 3.4. Ikaskuntzan parte-hartzeko oztopoak

#### Motibazio-faltan eta beharraren pertzepzioan oinarritzen dira oztopoak

Zein dira pertsonen haien bizitzan zehar ikaskuntza-jardueretan parte hartzea galarazten duten oztopoak? Atxikitako taulak senior taldearen emaitzak jasotzen ditu, aintzat hartutako hiru uneetan eta bi bloketan bateratuta: lehenengo multzoak pertsonak bere burua ikusten duen edo sentitzen den moduarekin lotutako emaitzak jasotzen ditu (argudio endogenoak), eta bigarren multzoak kanpokoak diren baina pertsonen erabakiak mugatzen dituzten elementuak hartzen ditu barne (faktore exogenoak).

Eskuratutako emaitzek erakusten dutenez, pertsonen ehuneko handiago batek aipatzen ditu hiru argudio endogenoak (motibazio-falta, beharrik ez izatea edo gehiegizko adina), faktore exogenoak baino (familia-erantzukizunak, laneko ordutegiarekin uztartzea eta kostua). Funtsean, baieztatu egiten da pertsona seniorrek etengabeko ikaskuntzan parte-hartzeko duten oztopo nagusia, batez ere, euren barnekoa dela.

Emaitzaren egiturari dagokionez, kontuan hartu behar da motibazio-faltari (animorik ez) edo behar-faltari ("behar dudanerako, nahikoa dakit...") lotutako aukeren arteko



elkartruke maila. Hain zuzen ere, biak batera aintzat hartuz gero, giltzarriak dira bi argudioak (% 43,4, % 40,8 eta % 54,6 2016-17, 2019-20 eta 2022-23an).

Gainera, adina, bere horretan, garrantzia galtzen ari da. Kontsultarik berrienetan txikiagoa da adinarekin lotutako erantzunen tasa (% 13,8), aurreko kontsultetan lortutako emaitzekin alderatuta (% 19,5 eta % 22,4 2016-17an eta 2019-20an). Adinari (betetako urteak) buruzko beste pertzepzio bat duten pertsonak iristen ari dira apurka adin-tarte honetara, eta horrek azaldu dezake aipatutako bilakaera. Askotan, beste ezaugarri garrantzitsu batzuk ere izaten dituzte, eta pertsona seniorren batez besteko profila aldatzen dute, hala nola enpleguan duten parte-hartzea eta eskuratutako ikasketa maila.

#### 6. taula. Talde seniorren arrazoiak ikaskuntzan ez parte hartzeko

azken urtean prestakuntzarik jaso ez duen pertsona seniorren %

	2016-17	2019-20	2022-23
<b>Motibaziorik ez dut</b>	29,4	26,4	30,8
<b>Uste dut ez dudala beharrik (nahikoa ezagutza baditut)</b>	14,0	14,4	23,8
<b>Ez dut adinik, zaharra naizela uste dut</b>	19,5	22,4	13,8
<b>Nire familia-erantzukizunek ez didate uzten</b>	25,2	25,0	20,1
<b>Prestakuntza ez da bateragarria laneko ordutegiarekin</b>	6,5	8,7	6,4
<b>Garestia da, ezin dut ordaindu</b>	5,3	3,0	5,0

Hainbat erantzun, 100 oinarriaren gainean. Kontsulten batezbestekoa

Iturria: Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

Zuzenean inplikaturako pertsonarentzat exogenoak diren faktoreen taldearen barruan, familia-erantzukizunen pisuak nabarmena izaten jarraitzen du: bost pertsonatik gutxienez bi pertsonak aipatzen dute oztopo hori, nahiz eta profila apurka behera egiten ari den (2016-17an % 25,2koa izatetik 2022-23an % 20,1ekoa izatera).

Azkenik, beste bi argudioak, laneko ordutegiarekin uztartzearekin eta ikaskuntzaren kostuarekin lotutakoak, gutxien aipatzen direnak dira eta horien pisua ez da aldatu (% 6 eta % 5 inguru, hurrenez hurren, 2016-17 eta 2022-23an).

Funtsean, etengabeko ikaskuntzan parte hartzen ez duten pertsona seniorrek, batez ere, guztiz pertsonalak diren arrazoiak aipatzen dituzte, motibazioarekin edo beharrik ezarekin (edo ikasitakoaren aplikagarritasunarekin) lotutakoak, eta horiek familia-erantzukizunekin osatzen dira.

### 3.5. Ikaskuntzaren garrantzia pertsonen bizitzan

#### Ikaskuntzaren garrantzia Gipuzkoako garapenean, balio partekatu gisa

Gipuzkoako pertsona helduek egindako ikaskuntza-jarduerei buruzko kontsulta osatzeko, ikaskuntza eta pertsonen konpetentziak eta trebetasunak garatzen jarraitzea nola baloratzen duten aztertuko dugu. Emaidza nagusien arabera,

- Pertsona senior ia guztiek uste dute ikaskuntza garrantzitsua dela lurraldearen garapenerako (% 98,4), eta pertsona guztiek ikasi beharko luketela adierazi dute (% 98,4).
- Gainera, pertsona seniorren % 94,1ek adierazi dute ikaskuntzak erraztu egiten duela lana aurkitzea, eta % 90,8k nabarmendu dute egungo egoera ekonomikoaren aurrean ikasteak duen garrantzia.
- Pertsona seniorren artean, lautik hiruk baino apur bat gehiagok uste dute, oro har, biztanleria motibatuta dagoela prestakuntza jasotzeko (% 74,3), eta gutxiagok uste dute ikaskuntza nahikoa aitortuta dagoela enpresetan eta gizarte osoan (% 66,7).

Balorazio hau mantendu egin da denboran zehar (bat dator aurreko kontsultekin).

#### 7. taula. Ikaskuntzaren garrantzia. Pertsona helduak eta talde seniorra (2022-23)

Erabat edo neurri batean ados dagoen biztanleriaren %

	Pertsona helduak	Talde seniorra
<b>Ikaskuntzaren garrantzia</b>		
Ikaskuntza garrantzitsua da Gipuzkoaren garapenean	98,6	98,4
Denek ikasi behar dute	97,9	98,4
Ikasteak enplegua bilatzen laguntzen du	94,2	94,1
Egoera ekonomiko honetan, denek ikasi behar dute	89,9	90,8
Pertsonak, oro har, ikasteko motibazioa dute	70,9	74,3
Ikaskuntzak behar bezainbesteko aitortpena du enpresen eta gizartearen aldetik	58,1	66,7
Prestakuntza duten pertsonak dira ikasten dutenak	51,5	59,0

Kontsulten batezbestekoa

Iturria: Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

# 4. Talde seniorraren baitako ezberdintasunak

## 4.1. Talde seniorraren osaera, adin-azpitaldearen arabera

### Talde seniorraren barne-osaerak baldintzatu egiten ditu eskuratutako emaitzak

Ziur asko, 55 eta 74 urte arteko pertsonen taldearen osaera eta ezaugarriak aldatu dira gehien aintzat hartutako denbora-tartean (2016-17tik 2022-23ra), eta are gehiago aldatuko ziratekeen denbora-tarte luzeagoa aintzat hartu izanez gero.

Babyboomers belaunaldiko pertsonak (1960az geroztik jaioak) talde horretara iristen ari dira, eta horrek bi aldaketa-faktore garrantzitsu eragin ditu ikaskuntzarekin lotuta: emakumeen lan-munduratzeari sendotu egin da eta eskuratutako ikasketa maila hobetu egin da. Bi faktore horiek, hau da, enpleguarekiko loturak eta eskuratutako prestakuntza-ibilbideak, inplikazio handiagoa eragiten dute etengabeko ikaskuntzan.

Talde seniorra osatzen duten azpitaldeetan erregistratutako ezberdintasunak eta aldaketa erakusten ditu atxikitako taulak.

- Enpleguarekiko jarrera ezberdina. 55-64 urte arteko taldeak lan-merkatuan jarraitzen du, baina 65etik gorakoek ez. Adin horretatik aurrera, jubilazio-egoera edo ordainpeko lan-jarduerarekin loturarik ez duten egoerak gailentzen dira. Enpleguarekiko egoera ezberdina izateak gertagarriago bilakatzen du 55-64 urte arteko azpitaldeak ikaskuntzan parte hartzea.

Gainera, 55-64 urte arteko azpitaldeak gero eta tasa handiagoa du enpleguan; 2022-23an, % 50 ingurukoa. Hala, ehuneko ia bost puntu hazi da 2016-17ko

emaitzarekin alderatuta. Gertakari horrek, aldi berean, talde horren etengabeko ikaskuntza-tasa handiagoa izatea bultzatzen dezake.

- Eskuratutako prestakuntza maila pixkanaka hobetu da, eskuratutako prestakuntza mailan aldaketa izan zuten belaunaldiak adin horretara iristen doazen heinean.

Hala, aintzat hartutako azpitalde guztietan, apurka pisua galtzen ari da lehen mailako ikasketak edo baxuagoak dituzten pertsonen taldea (% 34,9tik % 25,1era eta % 50,6tik % 34,2ra 55-64 urte arteko eta 65-74 urte arteko azpitaldeen kasuan, hurrenez hurren). Aintzat hartutako beste bi prestakuntza-mailak irabazi dute talde horrek galdutako pisua.

Hain zuzen ere, aurrerapena bereziki nabarmena da unibertsitateko ikasketak dituzten pertsonen taldearen pisu erlatiboari dagokionez: 55-64 urte arteko hamar pertsonatik lau inguruk (% 40,9 eta % 36,6 2019-20 eta 2022-23an, hurrenez hurren) eta 65-74 urte arteko hamar pertsonatik hiruk dituzte unibertsitateko ikasketak, profil gorakor argiarekin (% 19,1 eta % 29,9 2016-17 eta 2022-23an, hurrenez hurren).

#### 8. taula. Pertsona seniorren ezaugarriak, adin-azpitaldearen arabera

	2016-17	2019-20	2022-23
<b>Pertsona seniorren ratioa enpleguan</b>			
55-64 urte	44,1	44,9	49,4
65-74 urte	0,0	0,0	0,8
<b>Ikasketa mailaren arabera % egitura, 55-64 urte</b>			
Lehen mailakoak edo baxuagoak	34,9	22,6	25,1
Bigarren mailakoak-Lanbide Heziketa	42,5	36,5	38,4
Unibertsitatekoak	22,6	40,9	36,6
<b>Ikasketa mailaren arabera % egitura, 65-74 urte</b>			
Lehen mailakoak edo baxuagoak	50,6	43,2	34,2
Bigarren mailakoak-Lanbide Heziketa	30,3	32,2	35,9
Unibertsitatekoak	19,1	24,6	29,9

Kontsulten batezbestekoa

Iturria: Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

Funtsean, talde seniorra osatzen duten pertsonen ezaugarriek bi norabidetan jarraituko dute aldatzen: enplegu-tasa haziko da (laneko bizitzaren zikloa luzatzearen inpaktua dela eta) eta eskuratutako prestakuntza-ratioa finkatuko eta/edo handituko da.


Hortaz, talde seniorraren etengabeko prestakuntza-tasak hobetzen jarraituko duela aurreikus daiteke, batez ere, taldea osatzen duten pertsonen ezaugarrien bilakaera dela eta.

### Beste emaitza batzuek berresten duten errealitatea

Afiliazio-ratioaren aurrerapena jasotzen du atxikitako grafikoak<sup>5</sup>, adin-taldearen arabera eta adin-talde bakoitzeko Gipuzkoako biztanleriarekin alderatuta. Talde seniorrak enpleguan izandako aurrerapenaren gutxi gorabeherako ratioa da. Ehuneko hamar puntu baino gehiago hazi da 55-64 urte arteko pertsonen artean, eta bazterrekoa izateari utzi dio 65-74 urtekoen artean (2022an % 5,8). Baina, gainera, talde seniorrak lurraldeko guztizko afiliazioaren gainean duen pisu erlatiboa % 18tik % 23ra pasatu da aintzat hartutako aldian (tamaina erlatibo handiagoa duelako adin-talde gisa).

Hortaz, talde seniorraren jarduerak baldintzatu egingo du Gipuzkoako pertsona helduen etengabeko ikaskuntza-tasaren bilakaera, eta interesa mantentzea izango da giltzarria, motibaziorik ezaren faktorea gainditzeko, hura baita ikasten jarraitzeko oztopoen artean gehien aipatzen dena.

### 8. grafikoa. Afiliatutako pertsona seniorren ratioaren bilakaera, haien adin-taldearen gainean



65-74 urte artekoen afiliazioak 65 urte eta gehiagoko pertsonen taldeari egiten dio erreferentzia  
 Iturria: Afiliazioa (Gizarte Segurantzak) eta Biztanleria (Eustat)

<sup>5</sup> 55-64 urte artekoen taldeak enpleguan duen parte-hartzearen ratioa apur bat txikiagoa da afiliazioaren kasuan baino. Izan ere, laginean pisu erlatibo handiagoa dute emakumeek.



## 4.2. Ikaskuntzan parte hartzea eta adina (talde seniorra)


### Talde seniorrak ikaskuntzan duen parte-hartzea jaitzi egiten da adinarekin

Talde seniorrak ikaskuntzan duen ibilbidea jasotzen du atxikitako grafikoak, adinaren arabera bi azpitaldetan banakatuta. Argi eta garbi ikus daiteke talde seniorreko azpitalderik gazteenaren (55-64 urte) ikaskuntza-tasak bikoiztu egiten duela nagusiagoen (65-74 urte) azpitaldearena.

Hortaz, Gipuzkoako biztanleria helduaren (25-74 urte) guztizkoaren kasuan baieztatuko gertakari bat berresten da: adinean aurrera egin ahala, parte-hartzeak behera egiten duela. Segmenturik gazteenak ikaskuntzan jarraitzearen mende dago, neurri handi batean, talde seniorraren emaitza.

Gainera, denboran zeharreko ibilbideak erakusten duenez, aintzat hartutako bi azpitaldeen ikaskuntza-tasa hobetu da, eta azken kontsultetan balio altuagoak eskuratu dituzte aurrez egindakoen baino.

### 9. grafikoa. Etengabeko ikaskuntzako parte-hartzea, adinaren arabera (talde seniorra)




Kontsulten batezbestekoa

Iturria: Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

Emaitza berberak eskuratzen dira ikaskuntza jarraituaren kasuan (kontsultaren aurreko lau asteetan egindakoa): orokorrean, talderik gazteenaren ratioak (55-64 urte) ia bikoiztu egiten du adin nagusiagoko azpitaldearen erregistroa. Bi taldeen arteko arrakala mantendu egiten da, orokorrean, bi azpitaldeak denboran zehar hobetu egin badira ere.

**10. grafikoa. Ikaskuntza jarraituko parte-hartzea, adinaren arabera (talde seniorra)**



Kontsulten batezbestekoa


Iturria: Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

### 4.3. Aurreikuspenak eta ez ikasteko oztopoak (talde seniorra)

#### Talde seniorrak ikaskuntzan duen parte-hartzea jaitsi egiten da adinarekin

Talde seniorraren erantzuna bi azpitaldeen arabera banakatuz gero, ikasten jarraitzeko aurreikuspena adinarekin murriztu egiten dela ikus daiteke. Gainera, orokorrean, ikasteko asmoa ia bikoitza da azpitalderik gazteenean, azpitalde nagusienarekin alderatuta. Dena den, ikasteko jarraitzeko asmoak hobetzen jarraitzen duela baieztatu da berriz ere.

**11. grafikoa. Ikasteko aurreikuspenak, adinaren arabera (talde seniorra)**



Kontsulten batezbestekoa

Iturria: Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

### Bi azpitalde seniorretan motibaziorik eza da oztopo nagusia

Azkenik, ikaskuntza-jarduerarik egin ez duten pertsonen argudioak jasotzen ditu atxikitako taulak, adinaren arabera, eta senior taldearen baitan. Honako ondorio hauek atera daitezke:

- Emaizten rankinga partekatua da, eta erantzun gehienetan faktore endogenoekin lotutako blokeari egiten diote erreferentzia, batez ere.

Talde horren barruan motibazio-falta nabarmentzen da, bereziki, zaharrenen kasuan, hamar pertsonatik lauk aipatzen baitute horien artean; seniorren arteko azpitalderik gazteenean, hamarretik hiruk aipatzen dute. Bi kasuetan, denboran zehar mantentzen da argudio horren pisua. Bestetik, gutxiagok erantzun dute adina dela faktore mugatzailea, eta beheranzko joera du.

- Azkenik, pertsona askok aipatzen dituzte familia-erantzukizunak.

Paradoxikoki, konpromiso mota horiek adinean aurrera egin ahala pisu gutxiago izango dutela pentsa liteke, baina ez da hala. Bi azpitaldeetan antzekoa da erantzunen ehunekoa (% 20,7 eta % 19,1 2022-23an, 55-64 urteko eta 65-74 urteko azpitaldeentzat, hurrenez hurren). Nolanahi ere, azkenaldiko kontsultetan pisu erlatibo txikiagoa duela dirudi.

### 9. taula. Pertsona seniorren ezaugarriak, adin-azpitaldearen arabera

azken urtean prestakuntzarik jaso ez duen biztanleria seniorren %

	55-64 urtekoen azpitaldea			65-74 urtekoen azpitaldea		
	2016-17	2019-20	2022-23	2016-17	2019-20	2022-23
<i>Motibaziorik ez dut</i>	30,9	25,5	29,3	40,9	31,9	45,0
<i>Uste dut ez dudala beharrik (ezagutza nahiko)</i>	11,9	15,9	25,2	23,9	14,8	30,5
<i>Ez dut adinik, zaharra naizela uste dut</i>	12,8	13,5	10,1	28,0	33,4	18,0
<i>Nire familia-erantzukizunek ez didate uzten</i>	26,0	25,2	20,7	25,4	26,8	19,1
<i>Prestakuntza ez da bateragarria laneko ordutegiarekin</i>	10,9	15,8	10,9	1,8	1,5	1,2
<i>Garestia da, ezin dut ordaindu</i>	7,5	4,1	3,8	3,0	2,1	6,4

Hainbat erantzun. 100 oinarriaren gainean kalkulaturik. Kontsulten batezbestekoa

Iturria: Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia



# 5. Ondorioak

## 5.1. Laburpena: emaitza nagusiak


Gipuzkoako 55 urteko eta gehiagoko pertsonen bizitza osoko ikaskuntzako parte-hartzearen eta konpromisoaren ikuspegi orokorra izateko, jarraian egindako analisiaren indar-ideia nagusiak jaso ditugu:

1. Alde batzuk ikusten dira Gipuzkoako pertsona helduen guztizkoak etengabeko ikaskuntzan duen parte-hartzearen dinamikarekin alderatuta, baina lurraldeko pertsona seniorrek antzeko portaera dute alderdi askotan. Hala ere, gai jakin batzuetan agerikoa da adinaren inpaktua.
2. Biztanleria osoaren kasuan gertatzen den moduan, adinean aurrera egin ahala jaitxi egiten da ikaskuntzako parte-hartzea. Hala, talde seniorreko azpitalderik zaharrenaren parte-hartzearen tasa, gutxi gorabehera, azpitalderik gazteenaren tasaren erdia da. Emaitza horrek erakusten duenez, lanean ari diren pertsonak gehiago ikasten dute lan-merkatutik kanpo daudenek baino. Pertsona seniorren arteko bi azpitaldeak bat datoz bi kolektibo horiekin.
3. Pertsona seniorrek etengabeko ikaskuntzan duten parte-hartzearen intentsitateak erakusten duenez, azken urteetan sendotu egin da prestakuntzako parte-hartzea. Hala, hazi egin da urtean hiru prestakuntza-jarduera baino gehiago egiten dituztenen multzoa, eta, aldiz, behera egin du urtean ikaskuntza-jarduera bakarra egiten dutenen multzoa. Gainera, prestakuntza jasotzearen truke ordaintzeko prest dagoen taldea da.
4. Ikasten jarraitzeko aurreikuspenak ere jaitxi egiten dira adinean aurrera egin ahala. Hain zuzen ere, ikasten jarraitzeko asmoa ia bikoitza da azpitalderik gazteenean, azpitalde zaharrenarekin alderatuta. Dena den, azken urteetan hobekuntza jarraitua izan du ikasten jarraitzeko asmoak pertsona seniorren artean.

5. Gizarte gisa, pertsona seniorrak ikaskuntzara gerturatzeko gainditu beharreko erronka nagusia motibazio-falta da. Prestakuntzarik ez jasotzeko arrazoien artean, hori da gehien aipatzen dutena, batez ere, adin nagusieneko azpitaldean.
6. Nolanahi ere, talde seniorrak eta biztanleria heldu osoak oso garrantzi handia ematen diote ikaskuntzari. Ia guztiek uste dute garrantzitsua dela lurraldearen garapenerako eta pertsona guztiek ikasi beharko luketela. Gipuzkoako biztanleria heldu osoak partekatzen duen errealitatea da, eta denboran zehar mantentzen da balorazioa.





<b>Izenburua:</b>	Pertsona seniorren parte hartzea ikaskuntzan 93. dokumentua, 2023ko urria
<b>Sustapena eta finantzaketa:</b>	Ekonomia Sustapena eta Proiektu Estrategikoko Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia <div style="display: flex; justify-content: center; align-items: center; gap: 20px;"> <div data-bbox="539 1615 673 1697"> <p><b>Gipuzkoako Foru Aldundia</b> Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoko Departamentua</p> </div> <div data-bbox="683 1608 762 1709">  </div> <div data-bbox="770 1615 904 1697"> <p><b>Diputación Foral de Gipuzkoa</b> Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos</p> </div> </div>
<b>Egilea:</b>	IKEI, research & consultancy S.A.
<b>Landa lana:</b>	Datakey, S.A.

